

Amaitu dira 25. urteurreneko ospakizunak

Atzo Loidi Barreneko frontoian ospatutako erromeriak eman zion amaiera ekitaldiz betetako asteari

Larunbateko eguraldi kaxkarrak ez zuen gehiegi lagundu ospakizunetan, Biyak Bateko gimnasia taldearen erakustaldia azken momentuan kiroldegian egin behar izan zuten, ikusle gutxiagorekin, asko ez baitziren enteratu.

Igandean berriz, eguraldi zoragarria egin zuen eta jende ugari atera zen kalera ekitaldietaz gozatzeraz: danborrada, sorgin dantza, futbol partida...

Isla plazan ipinitako haurrentzako parke erraldoian ere gustura egon ziren haurrak jolasean eta saltoka.

Barruko orrialdeetan duzue asteburu honetako ekitaldien errepaso labur bat argazki eta kroniken bidez. 25. urteurreneko ekitaldietako argazki gehiago ikusi nahi izanez gero, sartu Txintxarriko web atarian, www.txintxarri.info atarian eta bertan aurkituko dituzue. •



Amalur taldeko musikariek giro ezinhobea jarri zuten frontoian atzo arratsaldean.



Aterpeko kideak eten gabe aritu ziren txistorra eta hirugjarra erretzen jendeari banatzeko.



Ttakunen eskutik sagardo ezberdinak dastatzeko aukera izan zen.



Bitxiak egiteko ikastaroa antolatu du Ttakun Kultur Elkarteak martxorako. Material birziklatuak eta eskura errazak erabiliko dira bitxi mota desberdinak egiteko /6



Eguneroko menua
Astebukaerako menua
Karta
Bokatak
.....

Berria!

Txikiardi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964

txintxarro

erretegia 

Sagardotegiko menua

Sahietsarekin 22€
Txuletarekin 30€



Mende oso bat banantzea eskatzen

- Lasarte-Oriaren eraketa prozesuaz mintzatu zen asteazkenean Jesus Manuel Perez Centeno
- Herritarren saiakera eta garai desberdinetako egoera ekonomikoa eta politikoak aztertu zituen

Lasarte-Oria udalerrria 1986. urtean sortu bazen ere, herritarrak 1860 inguruan hasi ziren, lehenengo banantze eskaerak eginen. Honi buruz eta Lasarte auzoaren eraketari buruz, besteak beste, mintzo zen Jesus Manuel Perez Centeno asteazkenean 25. urteurrenaren barruan eskani zuen hitzaldian.

NEREA EIZAGIRRE

Lasarte auzoaren sorrera, Lasarte familiaren dorretxearen inguruan egin zela azaldu zuen Perez Centenok.

“Lasarte familiaren dorre etxea XIV. mendearen erdialdean eraiki zen, egun dorre parke denean eta 1848an, bota zen. Ia 600 urte egon zen zutik,” aipatu zuen.

Lasarte familiaren jaureriaren inguruan, ola eta errota zeuden. Oriako bailara behean ezarri ziren hauek, bertan zeuden baliabide naturak, ura eta egurra, ustiatu eta burdina lantzeko.

Perez Centenok aipatu zuenez, eremuan baserriak zeuden soilik eta Lasarte familiaren jaureriaren ez zegoen biztanleri nahikoa hiri izateko.

1615ean, erregeak hiribildu izan nahi zuten herrixkei aukera eman zien eta lurra saldu zizkien.

Baina, Perez Centenok azaldu zuenez Lasartek ezin izan zuen eskubide hori lortu, ekonomikoki gabezia zegoelako. 1569an, San Pedro parroquia egiteko eraiki zen eta herritarrek Antiguoko San Sebastian elizari, San Telmo, Usurbil, Andoain, Hernani eta Umietako elizei zegozkien zer-gak oraindu behar zituelako.

Ama Brigitarren Komentuaren sorreraren kondaira eta

kaperan dagoen Kontsueloko Amaren irudiarena ere aipatu zituen, baita Lasarte familia Donostiako alkate izango zen Cristobal Lopez Zandategi eta Antonio Okendo almirantearekin ahaidetu zirela ere.

XIX. mendea

Lasarteko herritarrek Isabel II erregealdian agertu ziren lehenengo aldiz banantzearen aldeko, Perez Centenok azaldu zuenez.

Orduan, eremuan egoera ekonomiko ona zegoen. Isabel II.a erregina Gipuzkoako kostara etortzen zen udan eta horren eraginez, turismoa ugari erakarri zuen.

Horretaz gain, Orian Brunet familiak oihalen fabrika eta Eduardo Fosseyk Lasartean galdategia eraiki zituzten.

Ondorioz, biztanleriaren hazkundea egon zen eta herritarrak kexu ziren Hernaniko eta Urnietako herriekin Lasarteko auzoan ez zirelako inbertsioak eginen eta auzoak ez zituelako ez azpiegiturarik, ezta osasun zerbitzu minimoak ere.

Horregatik, 1986an, proposamen bat egin zieten bi herriei, baina egoera politikoa ez zen egokiena. Cadizen, La Gloriosa iraultza eman zen eta Isabel II.ak alde egin behar izan zuen atzerrira.

Hala ere, 1868an, Lasarteko udal barrutia sortu zuten herritarrek, batzarra eta guzti.



Herriarren sorrerari eta banantzeari lotutako hainbat azalpen eskaini zituen Jose Manuel Perez Centenok hitzaldian.

Tamalez, Foru Aldundiak atzera bota zuen saiakera, ez espedienterik ireki ez zutelako.

XX. mendea

Herritarrek aurrera jarraitu zuten eta 1921. urtean proposamen berria egin zuten.

Orduan Mundu gerra zegoen, herriaren hipodromoa eta golfa eratu ziren eta Europako turista asko zegoen inguruan.

Egoera horrek eta estatuen interes estrategikoak, aerodromoa, eta Orian sortzen ari zen langileria mugimenduak, marxismoaren eragina zuenak, zapuztu zituzten herritarren nahiak.

Eta Perez Centenoren ustez, argudio horiek, frankismo garaian ere indarrean jarraitu zuten.

Egoera ezin hobea

Perez Centenok azaldu zuenez, 1975. urtean egoera aproposa izan zen herriaren

banantzearen aldeko gestora sortzeko. Izan ere, Frankoren diktadura gainbeheran zegoen, presio politikoak zeuden Europatik eta petrolioaren prezioak ere behera egin zuten.

Gestora hori, elkarte erlijiosoen sortua zela, azpimarratu zuen Perez Centenok eta horrek lagundu zuela,

Gestora honek azterketa sozio-ekonomikoa egin zuen eta 1977an, emaitzen aurkezpena egin zuen. horren ondorioz, proposamen berria sortu zen eta Gobernaizian espedientea aurkeztu zuten.

1979an, alderdi politikoak legalizatu ziren eta Hernani eta Urnietako zinegotzi batzuk bat egin eta komisio bat sortu zuten banantzearen aldekoa. Urte horretako irailean, gestora eta komisioa batu ziren.

Banantzea posible

1982an, Batzar Nagusiek Lasarte banantzeko espedientea onartu zuten eta Foru

Aldundiari proiektua egitea eskatu zitzaion. Azaroaren 29an, hau onartu eta negoziaketekin hasi ziren.

Donostia, Usurbil, Andoain, Hernani eta Urnietarekin negoziatu zen lur eremuak lortzeko. Azken hirurek ez zuten arazorik, baina Usurbil eta Donostiako eremuek industria zuten eta hauek ezin izan ziren lortu.

Banantze prozesua azkarra izan zela, azpimarratu zuen, Jesus Manuel Perez Centenok. Lehenik, banantzeari buruz galdetuta egin zen eta baiezkotuta izan zen nagusi. Horrela, 1985eko azaroaren 16 eta 19an, Urnietako eta Hernanik Udal batzar bereziak izan zituzten lur banaketa onartzeko.

1986ko urtarrilaren 31ean Foru Aldundiak Lasarte sortu ahal zela jakin arazi zuten eta otsailaren 15ean, udalerrria eta behin behineko udal batzarra eratu zen, 1987ko hauteskundeetara arte. •



Futbol derbia interesgarriak. - Urteurren honetan, kirolak ere lekua du eta ostegunean, areto-futboleko Aldaz H.K. _ISU Leihoak derbia jokatu zen kiroldegian. Partida borrokatua izan. Atsedendialdi I-I zegoenmarkagailuan, baina azkenean, Aldazek eskuratu zuen garaipena, 3-2.

Igande arratsaldean berriz, Ostadar eta Texas futbol taldeen artekoa jokatu zen Michelinen eta 2na enpatatu zuten. Ondo jokatu zuten bi taldeek, giro onean.

Herri 'langilea' zen eratu aurretik ere

■ Antxon Agirre Sorondok "Lasarte-Oriako lan mundua" liburua aurkeztu zuen ostegunean
 ■ Gipuzkoan aitzindari izan zen 1840 inguruan ehungintza eta burdingintza fabrikak jartzen

Lasarte-Oriako industria ikertu du azken urteotan Antxon Agirre Sorondo etnologo eta historialari donostiarrak eta "Lasarte-Oriako lan mundua" liburua aurkeztu zuen ostegunean leporaino bete zen Kultur Etxeko hitzaldi aretoan. Industria, fabrika eta langileekin lotutako hainbat konturen errepaso zabala egiten da liburuan eta bi gauza nabarmendu zituen Agirre Sorondok: lasarteoriatarrek ehungintzan eta metalgintzan aitzindari izan zirela Gipuzkoan eta oso garbiak zirela gainera, Europako lehen garbigailuak hemen egin zirelako eta jostunek lan asko izaten zutelako emakumeen barruko arropak konpontzen.



Lasarte-Oriako lan mundua ikertzean oharatu da Antxon Agirre, herria dela aspalditik.

JON ALTUNA

liburu bana eman zitzaien.

Libururik onena

Antxon Agirre berak Lasarte-Oriarako egin dituen liburuen artean onena dela esan zuen "zalantzarik gabe. Besteak Lasarte-Oriako istorioak ziren, baina liburu hau egiterakoan konturatu naiz Lasarte-Oria bazela 1986ko otsailaren 15a baino lehen". "Gipuzkoako ekonomiairen parte inportantea zen gainera", gehitu zuen.

Lasarte-Oriaren azalpen orokorra eman eta demografiakoki aztertu eta gero, lehenengo lantegiei buruzko kapitulua dator liburuan: "bi lehenengokak, 1384an irekitako burdinolak eta ondoko errota, eta XIX. mendekoak: 1845 inguruan, Brunet familiaren tela fabrika, Fosseyren fundizioa eta Goiko errota; Flanch-en galdategia 1868an; Mujika teila fabrika 1887an; Usabiagatarren izotz fabrika 1894an.

Ondoren, 1900 urtetik gaur arte Lasarte-Orian zabaldu ziren 27 fabrika inportanteen zerrenda dator liburuan; Michelin, zerrategiak, taillerak,... banan banan aztertuak.

Ofizio ezberdinen ezauga-

riak ere aztertu ditu Agirre Sorondok, arotz, errementari, auto eta bizikleta konpontzaile, igeltsero, alpargatagile, zapatar, jostun eta sastre, ile-apaintzaile eta bizar-moztaile, modista, txokolategile, saskigile,... lantegietako hainbat arlo ere bai, besteak beste, mailak (langile, arduradun, nagusi,...) lan ordutegiak, (hasieran 12 ordu, gero 10, orain 8), nongoak ziren langileak, lehenengo soldatak, gabon egunetako opariak, atsedeen eta oporrak, lan, baja edota erretiroak, segurtasuna, grebak, langileen arropa eta oinetakoak, txapel eta sonreriak, eta beste hainbat kontu.

Etxeko tresnak

Elikadura, dendak, ostatuak, mediku, farmazia, eskolak, eta eliza, ospakizunak, ezkontza eta hiletak, kirolak,... baina

guztien artean garrantzia eman dio autoreak etxebizitzaren atalari, Lasarte-Oriako 12 base-ri, Lasarteko zein Bruneteko langileen etxeei, hauetako komun eta etxeko tresnei.

Hainbat berezitasun kontatu zituen: 1940an ba omen ziren denbora librean garbigailuak asmatzen zituzten artisauek. Orduan hasi ziren egiten AEBko etxeetan baina ez Europan. Lasarte-Orian, Fernando Ollokiegi eta Nemesio Noguesek Añorgan enkar-guz egin eta saltzen zituzten eta Antonio Arozenak, bere garbigailua patentatu egin zuen "Garbikin" izenarekin. Gerora 1960 inguruan zabaldu zen garbigailuen erabilera eta bere produkzio industrial. Gipuzkoako herririk garbiena dela aipatu zuen Agirre Sorondok eta beste argudio bat eman.

Emakume langileak

Brunet tela fabrika hemen zegoenez, tela saltzaile eta tela denda asko zirela esan zuen jostun eta modisten garrantzia nabarmenduz: 1924an bakarrik edo laguntzaileekin barruko arropak egiten zituzten jostun batzuen izenak aipatzen dira liburuan. 1944an Rafaela Cerrajería alargunak ba omen zuen josteko makina eta bere ustez, Gipuzkoako historian ez da horrelakorik. Honek urtean 750 barruko arropa konpontzen omen zituen, egunean bi.

Antxon Agirre harritu egin du emakumeen barruko arroparen garrantziak, "ez dakit, luzitza gustatzen zitzaion ala beste zerbaite zen, baina 750 konpontzen zituen urtean eta ez zen hainbeste emakume herrian. Ia egunero aldatuko zuten barruko arropa. Itzela da baina ez dut oraindik erabat argitu". •



Intza elkarteko pilota saileko alebinek (bi maila), infantilek eta kadeteek jokatu zituzten partidak larunbat goizean Loidi Barrereneko frontoian. Partida politik ikusi ziren.



Bolo partida larunbat goizean jokatu zen Michelinen - Miguel Burugain eta Jose Angel Belauzaran izan ziren bolo partidako irabazleak eta bakoitzak oroigarri bana jaso zuten antolatzaileen eskutik.



Albokako kide batzuk goiko pisura igo ziren abestera. Goitik eta behetik entzuten zen abestia, ederra izan zen.



Semblante Andaluz eta Zambrak emanaldi polita eta koloretsua eskaini zuten.



Bi pieza eskaini zituen Kukukak, muxikoak eta Jaurrieta.



Amaia Gonzalezen eskolakoak eta Zero Settek pieza politik eskaini zituzten.



Kale Hezitzaileen tailerren ondoren, herriko taldeen kontzertuak egin ziren Andatza plazan, irudian Hilotz taldea.



Eguraldi bikaina lagun izan zuten danbor eta barriljole guztiak. Giro ederra jarri zuten goizean euren danbor hotsekin.

Igandeko erromeriarekin eman zitzaien amaiera 25. urteurreneko ospakizunei

■ Herriaren parte hartzea handia izan zen asteburu osoan ■ Herriko kultur taldeek emanaldi paregabea eskaini zuten larunbatean ■ Atzo Danborradak eta Sorgin Dantzak hartu zuten kalea

Astea igaro da eta 25. urteurreneko ospakizunak atzo amaitu ziren. Eta ongi amaitu gainera, Danborrada eta Sorgin Dantzari esker, atzo herria goiza eta arratsaldean jendez betea egon baitzen. Hala ere, horiek ez dira asteburu honetan egin ziren ospakizun bakarrak izan. Asteburu mugitua izan da herrian eta adin guztientzako ekintzekin gainera: gazteentzako ekimenak, eta kontzertuak, kirol eta gimnasia erakustaldiak, haurrentzako jolasak, erromeria, txistorra jana, etab.

TXINTXARRI

Aste osoan zehar 25. urteurrena ospatzeko antolatuta diren ekitaldiek ez dute atseden izan asteburuan.

Ostirala arratsaldean, kale hezitzaileek tailer desberdinak, txapak, grafitiak, break dance edo parcouer eta graffiti erakusketa egin zituzten etxeko gazteen gozamenarako.

Eta gauerdira arteko festa egon zen ostean, herriko taldeen eskutik KST hip-hop taldeak eman zion hasiera emanaldiari eta ostean, Flashback eta Hilotz taldeen pop eta rock doinuak entzun ziren Andatza plazan.

Sasoian egon

Bola-joko txapelketak eman zion hasiera larunbateko ospakizunei.

Biyak Bat elkarteak lagunak sasoiaren daudela erakutsi zuten, San Pedro elizako plaza

egin behar zuten erakustaldia, baina eguraldi txarra medio, kiroldegian izan zen.

Intzako gazteek Udaberri txapelketako partida jokatu zuten Loidi-Barreneko pilotalekuan Gaztelekuko gaztetxoaren aurka.

Gainera, Andatza plazan haurrek primeran pasa zuten bertan egin ziren jolasekin.

Arratsaldean, Erketz EDT, Kukuka, Alboka abesbatza, Zero Sette akordeoi orkestra, Semblante Andaluzeko koro rozieroa eta Zambra taldea eta Amaia Caballero dantza eskolako kideek emanaldi paregabea eskaini zuten.

Bakarka edo elkarlanean talde desberdinek hala nola, Agurra, La boda de Luis Alonso, Ragon Falez, Jaurrieta, Kitolis, Godalet... Emanaldia amaitzeko Alboka, Erketz eta Zero Sette orkestrek Eusko Irudiak eskaini zuten.

Eta nahiko ez zutenek, dantzakiak izan zituzten Isla



Guiridiren Eusko Irudiak Zero Sette, Erketz eta Albokaren eskutik... zoragarria.

plazan Azabache orkestraren eskutik.

Parte hartze handia

Igandean, Lasarte-Oriako Sport calva taldeak kalba jaurtiketa txapelketa egin zuen Atsokabarreko parkean.

Bitartean, herriko kaleak jendez beteak zeuden, helduen danborrada noiz hasiko zain.

Ama Brigitarren komentuan hasi ziren, mojak lagun zituztela, eta herriko kaleetan

barrena ibili ziren Sarriegiren doinuak jarraiki eta Lasarte-Oriako ereserkia abestuaz.

Arratsaldean, aldiz Sorgin Dantzaren doinuak izan ziren nagusi.

Zumaburuko eliza ondok atera ziren heldu eta gazte-txoek zortzikoteak herriar ugari dantza lagun zituztela.

Herriko kaleetatik ibili eta Loidi-Barreneko frontoira egin zuten.

Honetan gain, Michelingo kirol gunean, Ostadar eta

Texas Lasartearraren arteko derbia jokatu zen.

Giro ederra zegoen herrian eta Loidi-Barreneko frontoian, erromeria aparta egin zen. Amalur trikiti eta pandero eskolako haurrek fandango eta arin-arinak edo doinu ezagunak eskaini zituzten. Dantzarekin galdutako indarrak berreskuratzeo, Aterpea eta Itakun elkarteek txistorra eta hirugiari jana eta sagardo dastatzeko aukera eskaintzen zuten. •



Atsokabarren Sport Calva txapelketa egin zen igande goizean. Andres Hernandez izen zen irabazlea, 40 tiradetatik 37 onak egin zituen. Bigarren Santos Jimenez geratu zen 36rekin.



Sorgin dantzako heldu eta gazteek eman zitoten amaiera ospakizunen asteari erromeriarekin batera.

Bitxiak egiteko ikastaroa Ttakunen

- Aurreko urteetan arrakasta izan du ■ Martxoaren 4a da izena emateko azken eguna
- Material birziklatuak eta eskura errazak erabiliko dira mota desberdineko bitxiak egiteko

Aurreko urteetan bitxiak egiteko ikastaroak arrakasta izan du eta aurreko urteetan ere antolatuko du Ttakun elkarteak. Olga Blanco irakasleak emango du martxoaren 9an hasita asteazken ala ostegun iluntzetan eta parte hartu nahi dutenek martxoaren 4a arte daukate izena emateko epea zabalik. Partaide kopurua 12 laguneko izango da gehienez, beraz interesatuak lehen bait lehen eman beharko dute izena elkartearen.

Ttakun Kultur Elkarteak bitxiak egiteko ikastaroa antolatu du aurreko urteetan. Eskura errazak diren materialekin eta zaharkituak daudenekin erabiltzeko moduko bitxiak egiten erakutsiko du Olga Blancok.

Bi orduko lau saio izango dira, lau aste iraungo du beraz ikastaroak eta parte hartzen dutenek erabakiko dute asteazkenean ala ostegunean izango den. Lehenengo bi astetan alanbre haria erabiliko da eta birzikletzeko materialak hirugarren eta laugarrenean.

Lehenengo astean, alanbre hariarekin belarritakoak eta eskumuturrekoak egiten ikasiko dute ikastaroan izena ematen dutenek, eta bigarren astean eraztuna eta lepokoak egiten.

Birziklapena

Azkenengo bi astetan birziklapena landuko da, hirugarren astean paparreko brotxea egingo da kamixeta zahar batetik abiatuta eta laugarren eta azken astean ilerako zinta edo diadema, beste kamiseta zahar bat erabiliz.



Honelako bitxi ederrak egiten ikasiko dute ikastaroan parte hartzen dutenek.

Esan bezala asteazken ala ostegunetan emango da ikastaroa arratsaldeko 19:00tik 21:00ra Erribera kalean 1 zenbakian, Ttakun elkartearen egoitza zaharrean.

Gehienez 12 lagunentzako dago tokia ikastaroan, beraz izena ematen duten lehenengo 12 pertsonak parte hartuko dute ikastaroan. 20 euro balio du ikastaroak, materiala anto-

latzaileek jarriko dute eta Ttakuneko bulegoan eman daiteke izena edo 943 371 448 telefono zenbakian. Epea martxoaren 4ra arte egongo da irekia. •



Dibertimendi emanaldia eskaini zuen Jalgin Xebe Diez aktoreak. Umorezko saio berezia eskaini zuen Xebek ostrialean. Lehenik eta behin berak idatzitako liburua aurkeztu zuen Xebek, *Esperando al gato*; bertan urteetan zehar jendeari entzundako esaldi xebeak jaso ditu. Ondoren bere familia aurkeztu nahi izan zuen, bere anai-arrebak, baina "azaltzen" ez zirenez, Xebek berak hartu zuen bere familiaren papera.

Xpresionk garatzen doa

Lasarte-Oria Gazte emanaldiak kudeatzen dituen Xpresionk elkarteak Euskal Autonomi Erkidego osora hedatuko da.

Gipuzkoan 2003an sortutako elkarteak, ekimenak aurrera eramateko hirugarrenen erreturtoak erabiltzen ditu. Gauzak honela, duela 3 urtetik hona, Xpresionk-ren babesle nagusia Norbega-Coca Cola da. Astelehenean, Koldo Mitxelena kulturunean elkarlanean egingo duten proiektuaren berri eman zuten kultur elkarte eta enpresak eta honetan 100 emanaldi egingo dituztela jakin arazi zuten.

Honen bitartez, elkartearen



zirkuitua Araba eta Bizkaira hedatuko da, ekimen eta adar artistiko gehiago izango ditu eta malgutasun handiagoa izango da.

Arte lorategiak proiektua

Honetaz gain, Xpresionk elkarteak Erreterria eta Zarauz-

ko Udalekin Arte Lorategi sarearen proiektua aurrera eramango duela ere jakitera eman dute.

Honetan, edozein espazio, lorategi, parke edo inguru natural, erakusketa areto irekia izango da. Orain, artisten bila dabil elkarteak. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

MAITENA URREBIZKAIAREN argazkiak ikusgai. Aukeratu gehien gustatzen zaizun argazkia eta parte hartu zozketan. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.



Erakusketa

Lasarte-Oriaren XXV. Urteurrena dela eta "ORIA" izeneko argazki zaharrez osatutako erakusketa ikusgai hildaren amaiera arte. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etatik 21:00etara.

Asteartea, 22

Zinea

EKOZINEMALDIA V. Edizioan honako filmak ikusgai: El final de línea, Historia del mecanismo de desarrollo limpio eta La tierra es nuestra. Filme batzuk gainera euskarazko azpitituluak dituzte. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etatik 21:00etara, BIETARA.



Ekozinemaldia izango da kulturetxean

Ekologistak Martxan taldeak antolatuta, EKOZINEMALDIAREN V. Edizioa da aurtengoa eta bi egunetan eskainiko dira filmak. Gaur honako filmak izango dira ikusgai: La miseria de la riqueza, La historia de las cosas, Segundo Desembarco eta Así vivimos aquí. Biharko programazioa ondo agendan dago ikusgai.

Filme batzuk gainera euskarazko azpitituluak dituzte.

ASTELEHENA 21
KULTURETXEAN, DOAN
19:00ETATIK 21:00ETARA
BIETARA

Asteazkena, 23

Ikastaroa

TXAKURRAK ONDO HEZITZEKO ikastaroko bigarren saioa. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Ostirala, 25

Kontzertua

AURKA taldearen kontzertua. Herriko taldeak punk eta rock estiloak jorrotzen ditu. Jalgi kafe-antzekian, 23:00etan, EUSKARAZ.

Igandea, 27

Zinea

MEGAMIN haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Osteguna, 3

Zinea

PAN NEGRO (PA NEGRE) filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30etan.



Andaluziaren eguna

Larunbata, 26

Kontzertua

19:30ean HIJOS DE JAEN taldearen emanaldia izango da. Sarrera, 3 euro. Manuel Lekuona kulturetxean.

Igandea, 27

Meza

12:30ean MEZA ROZIEROA ospatuko da "Semblante Rociero" koruaren eskutik. Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan.

Bazkaria

14:30ean BAZKARI HERRIKOIA egingo dute. Semblante Andaluz Elkartearen.

Kontzertua

18:30ean SEMBLANTE ROCIERO abesbatzaren emanaldia. Semblante Andaluz Elkartearen.

Astelehena, 28

Ekitaldia

20:00etan OHOREZKO ARDOA eskainiko da Andaluziako egunean. Semblante Andaluz Elkartearen.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan otsailaren 28an arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Etixeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, otsailaren 25ean Lasarte-Oriako Etixerat taldeak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Erraustegiaren aurka dantzan

Bi mila lagun dantzan jarri nahi dituzte martxoaren 20an eguerdian Zubietako plazan Erraustegiaren aurka eta moratoria eskatuz. Flashmob erraldoi hau egiteko "hartu

nahi dut arnas" kanta eta koreografia prest daude eta ensaioak Lasarte-Oriaren asteazkenean, hildaren 22an, arratsaldeko 19:30ean Sasotako ikastetxeko gimnasioan izango dira. Dantza nahiko erraza dela jakinarazi dute eta pausak ikasteko bideoa eta informazioa <http://www.gipuzkoaz.com/zerosabor/?p=302>, helbidean jarri dituzte.

Maria Auxiliadoraren meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da otsailaren 24an, ostegunean, arratsaldeko 17:00etan.

Igeiketa ikastaroa helduentzako

Martxoaren 2tik apirilaren 15era, helduentzako igeriketako erdi eta hasiera mailako

ikastaroa eskainiko dute udal kirolegian. Astean hiru saio izango dira, astelehenetan, asteazkenean eta ostiraletan, goizeko 07:10ean edo iluntzeko 20:30ean. Izena emateko azken eguna otsailaren 25a da. Ikastaroak 105,70 euro balio ditu eta kirolegiko bazkide direnentzat 58,70 euro. Informazio gehiago nahi izanez gero kirolegiko bulegora hurbildu edo 943 37 61 82 telefonoan ere informazioa eskatu dezakezue.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, lau erloju, urrezko pulstera, eraztun bat, hiru diru zorro, gerriko poltsa, manikura kutxatilla, neskaen eskumuturreko bat, bi zilarrezko pulstera, haur zamarra

bat eta larruzko zamarra bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrak, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Galdutako erlojuak

Swatch markako erloju beltz bat galdu zait Lasarte-Oriako kirolegiaren inguruan. Jaso duen pertsonari bueltatzea eskertuko nioke, opari bat zen eta. Eskerrik asko. Mikel 647 995 050 (mikelg-nieto@terra.es)

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Maitasun adierazpen saria jaso du Katxiporretak

Aspanogi elkarteak Katxiporreta taldearen lana omendu zuen otsailaren 14an

Aspanogi, minbizia duten haurren gurasoen elkarte, 2002an sortu zen gaixotasun hau pairatu behar duten familiei laguntzeko asmoz. Azalpenak, esperientzia, errealitate berrian burua kokatzea eta gehienbat babesa eskaintzea dute helburu. Minbiziarekin ez da bitzta amaitzen, eta jarraitzen duela erakutsi nahi dute. Uste okerrak, tabuak, beldurrak uxatzen dituzte, labore sozial garrantzitsua eginez. Elkarte honek Katxiporreta pailazo taldearekin izan dute elkartasun harremana azaleratu nahi izan du. Otsailaren 14an, Minbiziadun Haurren Nazioarteko Egunari aurre hartuz, Txara I eraikinean omenaldi hunkigarria egin zieten.

ITXASO MORENO

Lurraren, naturaren garrantzia, haur langileen egoera, etorkinen gaia, kulturen aniztasuna, ekologia, minbizia... gai ugari landu dituzte Katxiporreta taldekoek aurrera eramaten dituzten saioetan. Minbizia eta ume gaixoen inguruan burutu duten lan sozialagatik Aspanogi elkarteak omendu egin zituen "baina guretzako sari hau maitasun adierazpena da eta saria bera Aspanogi elkar-tearekin dugun harremana da" diote taldekideak.

Joxe Mari Agirretxe, Alex Tetuan, Aiora Zulaika, Mertxe Rodriguez, Isa Fdez. Agirre eta Amaia Tejeria dira Katxiporreta barruan dauden lasar-teoriatarrek eta Aspanogirekin beste taldekideekin batera, harreman estua izan dutenak.

Elkarlana

Urte asko dira pailazoak eta Aspanogi elkar lanean dabil-tzala "haiek gu baino hobeto damazkite kontuak eta 2002. urtean hasi ginela diote". Elkarteak antolatutako ekitaldi batera joan ziren euren saioa eskaintzera eta harez geroztik "harreman estua sortu da eta urtero saioa antolatzen dugu".

Baina pailazo talde honen kontzientzia soziala aspaldi jaio zen, "duela 20 urte herri-ko neskatxa bat minbizia zuela bisitan joan ginen eta hortik aurrera jarraitu dugu". Esperientzia gogorra izan zen hasieran "umeak entubatuak ikusten dituzunean, shock moduko batean gelditzen zara, baina mundu hori ezagutzeko tuboetatik haratago begira jarri eta umea aurkitzen duzu". Oso garrantzitsua da ume hauei pertsona sentiaraztea "eta hori argi dauka-gu". Esperientzia guzti hauek Ane Pirata liburuan islatu zituen Mitxel Murua idazleak "denborarekin hasierako

inpresio hori alboratzen ikasten duzu eta pertsonaren barruan dagoenarekin gelditu, nahiz egoera gordina izan".

Labore soziala saritzen

10 urteko harremanaren ostean errekonozimendu publikoa egin diete Aspanogikoek Katxiporretakoei "guk askotan eskertu diegun bezala eskertu nahi izan digute".

Txaran I-ean egin zen ekitaldia, azpisotano batean kokatuta dagoen gelan "eta guk askotan azpimundua bezala adierazten duguna. Bertan egoera dramatikoak bizi dituzten elkarte ezberdinak daude, agerikoak ez direnak".

Adituen laguntza

Minbiziaren gaia lantzea erabaki zutenean, gaian aditua zen elkarte batekin kontaktzea ezinbestekoa zela konturatu ziren "egunerokotasunean gaixotasun hori pairatzen dutenen esperientziak jakinda hobeto transmititu daiteke".

Ospitaleko esperientzia eta Aspanogirekiko harremanari esker *Eskerrik asko* ikuskizuna taularatu zuten "gaixotasun honen inguruan dauden kulpabilitate sentimenduak alboratu behar direla eta bizitzak jartzen dizun erronka honetan aurrera egin daitekeela azaldu genuen".

Minbizia izan arren bizitzak aurrera jarraitzen du, umeek jolasteko, lagunekin egiteko gogoia edukitzen jarraitu behar dute, beti ere ilusioa galdu gabe. Egoera gogorra da eta haurrak bizipez atzeratzen dituzte bertatik "bizitzari heldutasun puntu batetik begiratzen diote haurrak izan arren, egunerokotasuna askoz gehiago baloratzen dute eta gauza positiboekin geratzen dira".

Hasieran, harridura

Eskerrik asko saioak hasieran



Haurren heziketan lan garrantzitsua egiten dute Katxiporreta taldekoek, balore ezberdinak transmititzen saiatuz.

harridura sortarazi zuen "minbiziaren gaia umorearekin uztartu behar genuela? Guk tabu guztiak ezabatu eta gaixotasun honen errealitatea erakutsi nahi genuen".

Askotan minbizia heriotzarekin erlazionatzen da "eta guk horrekin puskatu nahi genuen". Gauzak ezagutu behar dira interpretazio okerrak ez jotzeko "bizitzen ari den hori ezagutzen badugu hobeto ulertzen dira gauzak, eta umei ere gauzak argitu behar zaizkie".

Minbizia gaur egun oso

"Aurpegia ematen dugunoz gain, Katxiporretan prestatzen ditugun ekitaldiak aurrera eramanez ahal izateko jende ugari eta ezaguna dago atzean, benetako lan garrantzitsu bat betetzen eta aurrera ateratzen"

zabaldua dago, eta edonori tokatu al zaio "hoberena ondo ezagutzea da eta gure ikuskizuna umeek gain heldui ere zuzendu genuen". Errealitate hau modu ulertez bategan transmititzen saiatu dira Katxiporretatik "gogoan dugu saioetan etortzen ziren aiton-amonak Marimotots-en egoerarekin identifikatuak sentitzen zirenak eta saioari esker beraien bilobak, semeak bizitzen ari ziren egoera hobeto ulertzen zutela esaten zigutenak".

Minbiziak ez dizkizu bizitzeko gogoak kendu behar "bizitzan indarrak behar dira minbiziari aurre egiteko eta bizitza berari aurre egiteko".

Saioetan hori islatu zuten "umeen bizitzeko gogoia taularatu genuen, eurak ez dute uste minbiziaren ondorioz hilko direnik eta horregatik indartsu aurre egiten diote". Umeen kemen hori helduei transmititzen saiatu ziren taulatu gainerik.

Gai sozialak helburu

Pailazoak umorea lantzen badute, horretaz gain ekarpen sozial bat ere egin dezakete eta hori izan dute helburu hasieratik Katxiporreta taldeko kideek "umoretik, euskarari, alaitasunean eta kulturari oinarritzen dira gure saioak".

Orain arte natura, osasuna, zientzia eta kultura gaia landu dituzte hainbat ikuskizun bidez; lurraren eta naturaren garrantzia, haur langileen egoera, etorkinen gaia, kultura, ekologia, kalean bizi diren behartsuenak... "gure ikuskizunek beti balore sozialak helaraztea dute helburu".

Elkartasuna

Hurrengo urtera begira, elkartasunean zentratutako ikuskizuna prestatzea dute buruan, horrela "natura, osasuna, zientzia eta kulturarekin batuz, umeen heziketan garrantzitsuak diren bost zutabeak landuak utziko genituzke".

Umeen heziketa prozesuan garrantzitsua da gurasoen papera, baita eskolan ikasten dituzten baloreak, baina horretaz gain "gizarte osoaren lana behar da eta hori dugu sortu berri dugun Irrien Lagunen Klubaren izpiritua". Beraz, elkartasunaren gaiaren bitartez "heziketaren osotasunera iritsi nahi dugu".

Katxiporretak umeen heziketa du puntu garrantzitsuztat baita balore sozialak helaraztea ere, asko eskaintzen ari diren arren euren aburuz "eman baino askoz gehiago jasotzen dugu guk jendearen gandik". •